

Homo berri bat aurkitu dute Israelen

Israelgo Neshher Ramla herrialdean *Homo* berri bat aurkitu dutela jakinarazi dute *Science* aldizkarian. Neshher Ramla *Homo* izena jarri diote, eta duela 140.000-120.000 urte inguruko arrastoak omen dira. Aspalditik dakite *Homo sapiens*en lehen populazioak jada duela 130.000-100.000 urte bizi zirela Ekialde Ertainean. Beraz, baliteke [denboran bat egin izana Neshher Ramla *Homo*-k eta gizaki modernoak](#).

Aztarnategian azaldutako erreminta litikoak aztertuta, ikusi dute Erdi Pleistozenoko industria eta Levallois teknologia erabiltzen zituela *Homo* berriak; hain zuzen, sapiensak erabiltzen zuen teknologia litiko bera. Horrek iradokitzen du denbora luzez elkarrekin interakzioan egon zirela bi gizaki-motak.

Bestetik, aurkitutako fosilak ere aztertu dituzte, eta [argitu dute neandertalen eta gizaki arkaikoa-goien ezaugarriak dituztela, konbinatuta](#). Aspalditik uste izan da neandertalak Europan sortu zirela, baina, azkenaldian, ikertzaile batzuek iradoki izan dute Europatik kanpoko talde ezezagunen ba-

ten ekarpen genetikoren bat ere badutela. Asiako mendebaldeko Neshher Ramla *Homo*-en populazio berriaren ezaugarriak ikusita, I. Hershkovitzek, J.L. Arsuagak eta ikerketaren beste egileek iradoki dute populazio berriak neandertalekin ere izango zuela interakzioa, eta, beraz, eragin zuzena izango zuela giza eboluzioan.

Litekeena da Afrika eta Eurasiako bidegurutzetako horretan uste baino korapilatsuagoa izatea populazioen arteko dinamika. Nolanahi ere, populazio berria izendatzean, *Homo* espezie-izenen ohiko izendapena saihestu dute zientzialariek, apropos. Izan ere, gero eta argiago dagoenez *Homo* generoko populazioek beren artean hartu-eman kultural eta biologikoa izan zutela, indarra hartzen ari da espezie desberdinak ote ziren zalantzan jartzen duen ikuspegia. Lanaren egileen ustez, berrikusteko dago zenbateraino diren espezie, leinu edo populazio *Homo* generoa osatzen duten taldeak: *erectus*, *georgicus*, *antecessor*, *naledi*, *floresiensis*, *luzonensis*, *heidelbergensis*, *helmei*, *denisovanos*, *neanderthalensis*, *sapiens*... ●



Neshher Ramla *Homo*-ren hezur parietala, masailezurra eta beheko bigarren molarra; Israelgo aztarnategi berrian aurkitu dituzte. ARG.: Ariel Pokhojaev, Sackler Faculty of Medicine, Tel Aviv University.